

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak eta Uhalrod SL enpresak protokolo bat sinatu dute Uharte-Arakilen fabrika berri bat jartzeko

*Enpresak 6,8 milioi euroko inbertsioa egitea eta 30 lanpostu sortzea aurreikusten du*

Jueves, 30 de agosto de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina Angulok eta Uhalrod SL enpresako ordezkari Francisco Martín Morentin Garraza-k asmoen protokolo bat sinatu dute gaur Iruñean Uharte-Arakilen aluminiozko alanbre handia fabrikatzeko industria bat jartzeko. Gobernuak enpresaren proiektua foru-intereseko inbertsioztat jo du, eta hura abian jartzeko administrazio-izapideak arintzen lagunduko du.



Barcina Lehendakaria eta Morentin, protokoloa sinatzeko unean.

Enpresak 6,8 milioi euro inbertitzeko eta 30 lanpostu sortzeko asmoa du. Ekoizpena 2013ko ekainean has dadin espero da, Uharte-Arakilko Sargaitz industrialdean kokatuko den fabrika berriaren eraikuntza eta ekipamendua osatzen denean. Nafarroako Gobernuak enpresarekin elkarlanean aritu da instalazioak kokatuko diren 32.00 metro koadroko lursail bat erosteko beharrezkoak diren izapideetan, eta bertan 5.000 metro koadroko estalitako nabe bat ere sartzen da.

Elkarlan horrez gain, gaur goizean sinatutako protokoloak indarrean dagoen araudiaren babesean enpresak lehiatu ahal izango duen laguntzen zerrenda zehazten du. Zehazki, Nafarroako Gobernuak 1.360.000 euro bideratu ahal izango ditu itzulik beharrik gabe. Laguntza hori enpresak aurreikusitako inbertsio guztiaren % 20ri dagokio eta, kasua iritsiz gero, [enpresa-inbertsiorako laguntzek](#) ezartzen dituzten baldintzak betez emango zen. Diru-laguntzaren ordainketa inbertsioen gauzatzeen mende dago eta ordainketa-konpromisoa 2013 eta 2014 ekitaldietarako finkatuta geratuko zen, beti ere dagoen aurrekontuaren arabera.

Enpresa-inbertsioari emandako laguntza horrez gain, Uhalrod SL enpresak Nafarroako Gobernuak honako honetarako abian jartzen dituen pizgarriak jaso ahalko lituzke: [ikerketara, garapen eta berrikuntzarako](#); [energia-aurrezpenarako](#); [enplegua sortzeko](#) eta [langileak prestatzeko](#), bai eta Sozietateen Zergaren kengarriak diren kenkari fiskalak izateko ere.

## **Osagai teknologiko handia duen produktuaren fabrikazioa**

Uhalrod SL Barranka inguruko akziodun nafarrena da, eta urtean 9 eta 12 milimetroko diametroko aluminiozko alanbre lodiaren 15.000 tona egiteko asmoa du. Kalkulatutako urteko fakturazioa 35-40 milioi ingurukoa da eta esportatzeko izango da bereziki.

Uhalrod SL fabrika berriak aluminiozko bi alanbre lodi mota egitea du xede: Deox motakoa (aluminio purua) Espainia, Italia eta Alemaniako altzairuzko fabrikatzaile handientzat; eta aluminio-zirkoniozko alanbre lodia, Uharte-Arakilen ere dagoen Trefinasa enpresari hornidura emateko osagai teknologiko handiko materiala.

Zehazki, aleazio hori lehengai moduan erabiltzen da ahalmen handiko eta gezi baxuko kablea egiteko. Irtenbide horrek gero eta eskaera handiagoa du mundu-mailan dauden linea elektrikoen ahalmena handitzeko. Uhalrod dagoen enpresa-taldea aitzindaria da material hori egiten eta Europako gainerako herrialdeetara ez ezik, besteak beste Egipto eta Txilera ere esportatzen du.

Uhalrod-en jarduera etengabeko ekoizpeneko hiru txandatan garatuko da, eta haietan estandar europarreko bobinak egingo dira (barneko 570 mm-ko diametroa, kanpoko 1.600 mm-ko diametroa eta 850 mm-ko zabalera gehienez ere 2.000 kiloko pisuarekin bobina bakoitzeko).